

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Angeles Lasa Garmendia*

*Ordizia,  
Gipuzkoa  
(1923-2023)*

Aurkibidea



## Biografia



Ordizian jaioa 1923an. Ama Oiangu baserrikoa eta aita Arranomendikoa zituen, biak Oiangu auzokoak. Angeles eta bere sei anai-arrebak kalean jaio ziren eta Urdaneta kalean eta Tximista kaleko Lizarazu-enean bizi izan ziren, denbora gehiena amaren jaiotetxean igarotzen bazuten ere. Oiangu baserria ezaguna da Fray Andres de Urdaneta bertan jaioa zelako eta baita bertako parke ezagunagatik ere. Eskola Nazionaletan ibili zen 13 urtera arte eta, ondoren, Donostian, jostun ikasketak egiten. Ordiziako Vicente Ruizen aritu zen lanean, bainugelako piezak egiten. Bere anaia Joseba eta ahizpa Rosariorekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

## Zintak

### ORD-041

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2011-08-08
- **Iraupena:** 111 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

## Pasarteak

### 1. Oiangu baserria eta Andres Urdaneta

- **Erref:** ORD-041/002
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:04:27. **Bukatu:** 00:06:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

#### Laburpena:

<p>Amaren jaiotetxeari, Oiangu baserriari, buruzko azalpenak. Etxe horretan jaio zen Andres Urdaneta apaiz eta kosmografoa. Garmendia familia erreterotako gisa bizi izan zen baserri horretan; etxejabea Infantadoko Dukea zen. Administratzaileek Barretxe jauregian kobratzen zuten errenta (dirua eta kapoi pareak) San Martin Egunean.</p>

## 2. Gari-lanak

- **Erref:** ORD-041/004
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:11:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

### Laburpena:

<p>Hiru ahizpa zaharrenak Oiangu baserrira joan ohi ziren gari-lanetan laguntzera. Garia igitaiaarekin ebaki eta gari-balak egiten ziren. Gero, garia eskuz jotzen zuten; nola egiten zuten azaltzen du. Garia jo ondoren, auzoko baserri bateko makinarekin garbitu egin behar izaten zen alea. Altamira baserriko gizon ibiltzen zen makinarekin, baserriz baserri. Garia garbitzeko makinak nola funtzionatzen zuen kontatzen du. Behin garia aletutakoan, etxe sarreran zegoen kutxa handi batean jasotzen zen. Ogia ere gari artean gordetzen zuten.</p>

## 3. Eskolara joan aurretik, esnea partitzera

- **Erref:** ORD-041/006
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:13:03. **Bukatu:** 00:15:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

### Laburpena:

<p>Sei behi, idi-parea, txerriak eta astoa izaten zituzten baserrian. Behi-esnea saltzen zuten Ordizian. Eskolara joan aurretik egiten zuten esne partiketa. Marmitak astoan lotuta joaten ziren kalera. Astoak Asto Kalen lontzen zituzten, eta, gero, marmitekin ibiltzen ziren etxez etxe. Litro esneak erreala balio zuen.</p>

## 4. Umetatik baserrian lagundu behar

- **Erref:** ORD-041/008
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:16:58. **Bukatu:** 00:17:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

### Laburpena:

<p>Egunero joaten ziren baserriko lanetan laguntzera. Alaba zaharrenak ez ziren eskolara joaten baserrian lan asko zegoen garaian. Gazteenak, eskolatik ateratakoak joan ohi ziren.</p>

## 5. Eskola nazionala eta Hildalgoren partikularra

- **Erref:** ORD-041/010

- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:19:57. **Bukatu:** 00:21:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

#### **Laburpena:**

<p>Eskolan non ibili ziren. Neskak eta mutilak aparte ikasten zuten. Irakasleak aipatzen dituzte. Ikasle asko ziren. Moja karmeldarren eskola ere bazen herrian, baina hura ordainpekoa zen. Joseba Hidalgo izenekin maisu batekin partikularrean. Partikularra ordaintzeko zer gorabehera izan zituen kontatzen du.</p>

### **6. Nesken eta mutilen heziketa**

- **Erref:** ORD-041/011
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:21:42. **Bukatu:** 00:22:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

#### **Laburpena:**

<p>Eskola garaiko oroitzapenak. Neska eta mutilen arteko aldea ikasketetan. Ez zuten elkarrekin ikasten. Lanbide-eskolan mutilak ziren gehiengoa.</p>

### **7. Aitaren igeltsero lanak**

- **Erref:** ORD-041/013
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:25:03. **Bukatu:** 00:25:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Lanbideak » Etxeginak

#### **Laburpena:**

<p>Aitak lantegian lan egiteaz gain, igeltsero lanak egiten zituen. Tximiniak garbitzen zituenean-eta, dirua eman beharrean patatarekin, zigiluekin... ordaintzen zioten batzuk.</p>

### **8. Umetako jolasak**

- **Erref:** ORD-041/016
- **Iraupena:** 0:04:22. **Hasi:** 00:27:17. **Bukatu:** 00:31:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

#### **Laburpena:**

<p>Umetako jolasak: txirunba, diabolarekin, kaniketari, "al bote", tabatan, "guardias y ladrones", sokasaltoan, ardogika pospolo-kaxa azalekin... Erdaraz

aritzen ziren jolasean. Auzoko neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean.</p>

## 9. 'Cara al Sol' kantatu behar

- **Erref:** ORD-041/017
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:31:39. **Bukatu:** 00:32:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Politika eta Franco

### Laburpena:

<p>Eskola nazionalean, sartu orduko 'Cara al Sol' kantatu behar izaten zuten: gero, ateratzerakoan, berriz kantatu behar izaten zuten.</p>

## 10. Kaleko jolasak

- **Erref:** ORD-041/018
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:32:12. **Bukatu:** 00:33:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

### Laburpena:

<p>Kalean jolas asko egiten zuten: izan ere, ez zen gaur adina trafikoa ibiltzen. "La naranja" harrapaketa eta "kantineritazka" ibiltzen ziren: nola jolasten zuten azaltzen du.</p>

## 11. Txori-habi bila

- **Erref:** ORD-041/019
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:33:26. **Bukatu:** 00:34:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Natura » Fauna » Hegaztiak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

### Laburpena:

<p>Jaietan, lau edo bost lagun txori-habi bila joaten ziren. Txoritan, tiragomarekin eta erreklamoan, nola ibiltzen ziren. Kardantxiloak (jilgero), kirrixkiletak (canario)... harrapatzen zituzten.</p>

## 12. Fruituak harrapatzen ibiliak

- **Erref:** ORD-041/020
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:34:40. **Bukatu:** 00:37:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

<p>Umetako ibilerak. Gaztainak, sagarrak, mizpirak, hurrak... harrapatzen ibiltzen ziren. Basozainarekin, markesaren parkeko (Barrena parkeko) zaindareekin eta udaltzainekin izandako gorabeherak kontatzen dituzte.</p>

**13. Garai bateko Ordizia**

- **Erref:** ORD-041/021
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:37:43. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

**Laburpena:**

<p>Garai bateko Ordizia nolakoa zen. Jende guztiak elkar ezagutzen zuen. Zer aldaketa izan diren herrian. Tximista kalea nolakoa zen; non bizi ziren. Iluntze partean, kaleetan ez zen argi askorik izaten: herriko mutilek ilunpetan neskak nola beldurtzen zituzten arbiekin, kalabazekin... Frontoian, plazan edota Tximista kalean jolasten zuten.</p>

**14. Herriko denda eta tabernak**

- **Erref:** ORD-041/022
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:41:45. **Bukatu:** 00:44:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

**Laburpena:**

<p>Herrian zer denda eta taberna zeuden. Denden izenak eta zer kaletan zeuden.</p>

**15. Arrain-saltzaileak**

- **Erref:** ORD-041/023
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:44:57. **Bukatu:** 00:46:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

**Laburpena:**

<p>Arrain-saltzaileak gurdi batekin ibiltzen ziren kalez kale. Ordiziako gizon bat motorrarekin ibiltzen zen inguruko herrietan (Zaldibia, Larraitz, Orendain...) arraina saltzen.</p>

## 16. Okinak

- **Erref:** ORD-041/024
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:46:07. **Bukatu:** 00:47:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

### Laburpena:

<p>Gerra ondorenean, ogi-saltzaile bat gurdiaekin ibiltzen zen kalez kalez "¡Panadero!" deika. Geroko okindegiak: Garin, Agirre, Esnaola...</p>

## 17. Barberuak eta ile-apaindegiak

- **Erref:** ORD-041/025
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:47:16. **Bukatu:** 00:48:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

### Laburpena:

<p>Barberuak (Beitia, Olea, Insausti...) eta ile-apaindegiak (Monika).</p>

## 18. Zapatariak

- **Erref:** ORD-041/026
- **Iraupena:** 0:00:24. **Hasi:** 00:48:39. **Bukatu:** 00:49:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Zapatagintza

### Laburpena:

<p>Zapatariak: Justo eliza parean eta Alda Urdaneta kalean.</p>

## 19. Santa Maria kalean zazpi taberna

- **Erref:** ORD-041/027
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:49:03. **Bukatu:** 00:50:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

### Laburpena:

<p>Santa Maria kalean zazpi taberna zauden: Hidalgo, Gau-txori, Murua, Martinez, 'Navarro', 'El Tubo' eta 'La Anismadad'. Urdaneta kalean ere baziren taberna batzuk. Sagardotegiak.</p>

## 20. Banketxe, zinema eta lantegiak

- **Erref:** ORD-041/028
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:50:55. **Bukatu:** 00:52:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Banketxeak
- Aisia » Kultura » Zinema
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak

### Laburpena:

<p>Banco Guipuzcoano. Zinema: Etxezarreta. Lantegiak: CAF, Nadal cartonages, Apellaniz, Galarreta... Aroztegiak, karrozeriak, zerrategiak... aipatzen dituzte.</p>

## 21. Aguazilak eta gauzainak

- **Erref:** ORD-041/029
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:52:31. **Bukatu:** 00:54:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

### Laburpena:

<p>Aguazilak eta gauzainak. Izenak aipatzen dituzte. Haien eginkizunak zein ziren. Aguzilak jotzen zuen bandoa herrian; danborra jo, herritarrei dei egin eta parte ematen zuen.</p>

## 22. Medikua, emagina eta praktikantea

- **Erref:** ORD-041/031
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:55:03. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

### Laburpena:

<p>Bi mediku ezagutu dituzte herrian: Don Juan eta Don Felix. Norbait gaixotuz gero, medikua joaten zen etxera. Luzi Zaldua zen herriko emagina. Praktikantea nor zen.</p>

## 23. Soldaduak Ordizian

- **Erref:** ORD-041/033
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:56:37. **Bukatu:** 00:59:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

<p>Gerra hasi zeneko oroitzapenak. Garai hartan, Angeles neskame zegoen izebaren 'La Amistad' tabernen (eliza ondoan). Lagun baten etxean zegoen soldaduak, kamioietan, herrian sartu zirenean. Taberna aurrean metraladoreak jarri zituztenean, taberna itxi eta Oiangu baserrira joan ziren. Oiangu zeudela, nafarrak sartu ziren Lazkao aldetik. Itsasondoko baserri batetik kanoikadak botatzen zituzten Oiangu aldera. Gauzka horrela, Angeles eta ahizpa zaharrena Oiangu Txikira joan ziren aitona eta osabarekin.</p>

**24. Gerrako atxilotuak eta fusilatuak**

- **Erref:** ORD-041/034
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 00:59:26. **Bukatu:** 01:04:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

**Laburpena:**

<p>Gerra hasi zenean, hainbatek ihes egin zuen herritik. Sasoi hartan, Angeles 'La Amistad' tabernan neskame aritzen zen. Zinema zegoen tokian, kartzela jarri zuten: herriko eta inguruetako atxilotuak bertan sartzen zituzten. Angeles jana ematera joaten zen atxilotuei kartzelara. Gerra denborako atxilotu eta fusilatuak. Fusilatutako senide eta herritar batzuei buruzko azalpenak: Ataunen, Etxarrin, Urbanan... hil zituzten.</p>

**25. Gerraren eragina**

- **Erref:** ORD-041/035
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 01:04:19. **Bukatu:** 01:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena:**

<p>Zinema zegoen tokian, kartzela jarri zuten. Militarrak eskolako eraikinean egon ziren. Militarrak lerrokatzen ari zirela soldadu bati tiroak ihes egin ziola gogoratzen du. Soldaduak Araman ere egon ziren.</p>

**26. Gerra denboko beldur-giroa**

- **Erref:** ORD-041/036
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:05:41. **Bukatu:** 01:07:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

**Laburpena:**

<p>Gerra denborako giroa. Beldurra: ez zen ezer galdetzen, ez zen azalpenik ematen. Soldaduak Angeles neskame zegoen tabernara joaten ziren. Soldaduei buruzko kontuak.</p>

## 27. Goserik ez

- **Erref:** ORD-041/037
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 01:07:09. **Bukatu:** 01:07:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

### Laburpena:

<p>Gerra denboran ez zuten goserik pasa. Baserrian ez zen jatekorik falta izaten: babarruna, patata, taloa... zerbait izaten zen beti.</p>

## 28. Artoa errotan ehotzera

- **Erref:** ORD-041/038
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 01:07:44. **Bukatu:** 01:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

### Laburpena:

<p>Rosario neskatala zela, artoa ehotzera joaten zen errotara. Bizikletaz egiten zuen joan-etorria. Ibasko eta Zaldibiako errotetara joan ohi zen.</p>

## 29. Etxeko bizikleta

- **Erref:** ORD-041/039
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 01:08:46. **Bukatu:** 01:09:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

### Laburpena:

<p>Bizikleta bakarra zegoen etxean. Anai-arreba gazteenek erabiltzen zuten, eta zaharrenak beti inbidiatan izaten ziren. Bizikleta Orbea markakoa zen. Rosariok dio "mutilentzako bizikleta" zela zeukan formagatik.</p>

## 30. Oianguko bidea

- **Erref:** ORD-041/040
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:09:28. **Bukatu:** 01:10:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

### Laburpena:

<p>Oianguko bidea noiz egin zuten. Obra-hondakinekin egin zen bidea, auzolanean. Obra-hondakinen artetik txatarra biltzen aritzen zen Angeles; gero, saltzeko.</p>

### 31. Jatekoa

- **Erref:** ORD-041/042
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:12:08. **Bukatu:** 01:13:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

#### Laburpena:

<p>Bakoitzak bere plateretik jaten zuen. Morokila, denek eltze batetik. Bazkalordurako: babarrunak. Afaritarako: aza patatekin edo porru-patatak. Postrerako: Josebak mendian harrapatutako sagarrak edo gaztainak. Igandetan: garbantzuak edo oiloa saltsan.</p>

### 32. Garbitasun pertsonala

- **Erref:** ORD-041/043
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 01:13:57. **Bukatu:** 01:15:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

#### Laburpena:

<p>Etxean ura eta argia zituzten. Ura nola berotzen zuten. Zapatuetan, etxeko emakumeak sukaldean garbitzen ziren barrinoin batean. Ez ziren mutilen aurrean garbitzen. Nesken eta mutilen arteko desberdintasunak.</p>

### 33. Lagun asko etxean

- **Erref:** ORD-041/044
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 01:15:47. **Bukatu:** 01:17:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

#### Laburpena:

<p>Etxea nolakoa zen. Lagun asko ziren etxean: normalean, binaka egiten zuten lo. Angeles gurasoen etxera ezkondu zen: garai hartan ohitura zen. Eguberritan, senide asko biltzen ziren etxean.</p>

### 34. Emandako arroparekin

- **Erref:** ORD-041/045
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 01:17:38. **Bukatu:** 01:18:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

#### **Laburpena:**

<p>Rosario mandatari lanetan ibiltzen zen herriko aberats batzuentzat. Trukean, arropa asko ematen zioten. Angelesek arropa horiek konpondu, eta etxeko guztientzat izaten zen arropa.</p>

### **35. Mantekin egindako trajeak**

- **Erref:** ORD-041/046
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:18:39. **Bukatu:** 01:19:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

#### **Laburpena:**

<p>Gerra garaian, nafarrak Oiangura sartu ziren, baina, kontraeraso bat tarteko, atzera bueltatu behar izan zuten. Ihesaldian, soldaduek mantak utzi zituzten mendian. Angeles-eta mendira joan eta mantak jaso zituzten. Gero, manta horiek beltzez tindatu eta ahizpa zaharrenaren ezkontzarako trajeak egiteko erabili zituzten.</p>

### **36. Arropa eta oinetakoak**

- **Erref:** ORD-041/047
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 01:19:53. **Bukatu:** 01:23:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

#### **Laburpena:**

<p>Nesken lehengo janzkera: gonak, soineak, blusak... Rosariok galtzak jantzita agertzen den argazki bat aipatzen du: garai hartan, ez zen ohikoa emakumeak galtzak jantzita ibiltzea. Aitaren eta osabaren galtzekin anaientzako galtza motzak egiten zituen Angelesek. Oinetakoak: Borceries markako larruzko botak, zolan iltzeak izaten zituzten. Apretak zuritzeko eta gehiago irauteko trikimailuak. Baserriko lanetan zebiltzanean buruan zapia eta txapel handi bat jartzen zuten eguzkitik babesteko.</p>

### **37. Joskintza**

- **Erref:** ORD-041/048
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:23:01. **Bukatu:** 01:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### **Gaia(k):**

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

#### **Laburpena:**

<p>Etxean egindako arropa erabiltzen zuten. Josten non ikasi zuten: Angeles, aurrena, jostun batekin ibili zen ikasten, eta, gero, posta-truke bidezko

ikastaroa egin zuen (Academia CCC); Rosario, berriz, Urdaneta kaleko Gorgo Calvo sastrean aritu zen.</p>

### 38. Ruiz lantegian eta "Korsetera"rekin ibilia

- **Erref:** ORD-041/049
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:24:40. **Bukatu:** 01:26:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Goierriko lantegiak
- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

#### Laburpena:

<p>Lau urte egin zituen 'La Amistad' tabernan neskame. Ordiziako Bicente Ruizen lantegian aritu zen beste lau urtez, bainu-gelako piezak egiten. Ruizenean lanean zebilela, jostun batengana joaten zen josten ikastera, eta, astean hiru egunetan, azoketan ibiltzen zen Felisa Garmendia "Korsetera"ren saltzaile laguntzaile moduan. Zenbat irabazten zuen aipatzen du.</p>

### 39. Asteburuan, zinera eta dantzara

- **Erref:** ORD-041/051
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 01:27:48. **Bukatu:** 01:30:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

#### Laburpena:

<p>Asteburuan, zinera joaten ziren. Pelikulak katalogatzeko moduak: hiru erronbokoa, bi erronbokoa... I Gandetan, musika-bandak jotzen zuen plazan. Ordiziako dantzaldia bukatzen zenean, Beasaina joaten ziren korrika han beranduago amaitzen baitzen. Dantza lotuan egitea libre zen.</p>

### 40. Santa Ana festak

- **Erref:** ORD-041/053
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:31:46. **Bukatu:** 01:34:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

#### Laburpena:

<p>Garai bateko Santa Ana festak nolakoa ziren. Santa Anaren irudia erretzen zen plazan. Kalejirak egiten zen Lizarrako musika-bandaren atzetik. Danborrada eta "matutina" ere egiten ziren. Herriko kuadrillek egiten zituzten karrozak.</p>

### 41. Oianguko festa

- **Erref:** ORD-041/055

- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:35:37. **Bukatu:** 01:37:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

**Laburpena:**

<p>San Inazio Egunean egiten zen Oiangu festa. Gerra aurretik hasi zen festa hori ospatzen: Hiru hamarreko elkartekoek antolatu zen aurrenekoz. Bazkaria eta erromeria izaten ziren.</p>

## 42. Garai bateko Oiangu

- **Erref:** ORD-041/057
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 01:38:44. **Bukatu:** 01:39:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

**Laburpena:**

<p>Garai bateko Oiangu nolakoa zen. Belardiak eta soroak ziren nagusi. Lehen, bi baserri zeuden: Oiangu Handi eta Oiangu Txiki.</p>

## 43. Herriko baserriak

- **Erref:** ORD-041/058
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:39:15. **Bukatu:** 01:40:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

**Laburpena:**

<p>Hainbat baserri aipatzen ditu: Bustuntza, Intxausti, Geresta, Zabale, Upabi, Agarre, Potxo, Granjakoa, Majori, Alkarte...</p>

## 44. Ordizia eta Beasain arteko pikea

- **Erref:** ORD-041/060
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:40:45. **Bukatu:** 01:42:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Kirola » Futbola

**Laburpena:**

<p>Lehen pike handia zegoen bi herrien artean, futbola tarteko zela. Elkarri kantuak ateratzen zizkien.</p>

## 45. Oiangu bidean norbait agertu...

- **Erref:** ORD-041/063
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 01:44:53. **Bukatu:** 01:46:16

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena:**

<p>Esnetara Ordiziatik Oiangura zihoazela, bidean gizon bat izara batekin atera zitzaieneko kontuak. Gauetan, afal ondoren, gurasoak eta hiru alaba zaharrenak Oiangura joaten ziren arto-zuritzera. Bidean, beti norbait ateratzen omen zen: beldurra pasatzen zuten. Artoa zuritu, gaztainak jan eta etxera bueltatzen ziren farola hartuta.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-04-29*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com